


Maialen Agirre Baez

B maila • 1 aipamena

Kaixo!

Maialen Agirre Baez naiz, 15 urte ditut eta Beasainen bizi naiz. Andramendi ikastoan ikasten dut txiki-txikia naizenetik. Marrazketa ikaragarri gustatzen zait eta kondaira zaharren istorioak ere bai; idazlan hau, adibidez, Mexikoko kondaira batean oinarrituta dago. Espero dut gustatzea!



EMAKUME NEGARTIA

Aupa! Ni Bob naiz eta 10 urte ditut, eta amarekin bizi naiz, nire gurasoak dibortziatuak daudelako. Niretzat banaketa ez da erraza izan, oso batuta geundelako. Nire ama mexikarra da, eta nire aita Texasekoa (AEB). Ez dakit ziur nola ezagutu zuten, baina elkar asko maite zutela badakit. Egia esan, haurtzaroko oso oroitzapen onak ditut, baina osatzen genuen *familia zoriontsuaren* irudia desagertu egin zen, amak aita bere buruzagiarekin laneko iruzurrak egiten harrapatu zuenean. Nire hama haserretu egin zen, eta amonarekin, bere jaioterrira, Mexikora, itzultzea erabaki zuen.

Hegazkinetik jaitsi, poltsak amaren etxe zaharrean utzi, eta Mexiko hiria bisitatu genuen lehenik. Gauza asko ikusi eta jan genituen: tamalak, natxoak eta takoak probatu genituen, mariatxiak ere ikusi genituen... Egia esan eguna oso neketsua izan zen, eta etxera iristean, amona eta lehengusu guztiak aurkitu genituen gure zain. Sekulako otordua egin genuen, eta gustura egon ginen afalosteko tertulian!

Ohera joan aurretik, oso nekatuta nengoenez, dutxa bat hartzea erabaki nuen erlaxatzeko. Eta dutxatik ateratzen ari nintzela, bat-batean zarata arraroak entzun nituen. Hasieran, nire lehengusuak txantxaren bat egiten ari zirela pentsatu nuen, beraz, ez nion garrantzi handiegirik eman. Lotara joan eta lo hartu nuen... berriro zarata hark esnatu ninduen arte! Zer izango ote zen? Negar hotsak ziruditen...

Ozen galdetu nuen, baina han ez zegoen inor. Ikertzera irten nintzen, eta nire amona atarian eserita aurkitu nuen pentsakor. Berak halxe esan zidan misteriotso

-Entzun duzu, ezta Bob? Bere negarrak dira... Emakume negartiarenak. Banekien hona etorriko zinela, nik ere horixe egiten dut. Zatoz nire ondora, bere istorioa kontatuko dizut...

Ni harrituta eta apur bat ikaratuta, bere ondora inguratu nintzen, eta Emakume negartiaren istorioa kontatu zidan...

XVI. mendean zehar, Mexiko eta Espainiaren arteko gerra lehertu zen Espainiarrek lurralde hau konkistatu nahi zutelako. Renata, Mexikoko Real de Catorce izeneko herri txiki batean bizi zen bere gurasoekin. Izaera gogorreko emakumea zen, baina baita gozoa eta atsegina ere. Baratzan egiten zuen lan bere familia elikatzeko, nahiz eta horretarako zailtasunak ere izan ohi zituen gerra zela eta. Egun batean, lanean zebilela, zarata handi bat entzun zuen eta etxerantz joan zen korrika... Soldaduek aita arrastaka soldadu gisa zeramakitela ikusi zuen, eta ama lurrean odoletan blai utzi zutela konturatu zen.

Renata hiri osoan zehar ibili zen laguntza eske, baina alferrik. Hurrengo egunean, herri osoa bildu zen Panchitaren (Renataren ama) hilobiratzerako. Renata depresio handi batean sartu zen, eta asteak eman zituen kalera irten gabe eta ezer jan gabe.

Handik aste batzuetara, etxetik irten eta denek atsekabez begiratzen ziotenez, taberna batean sartu zen alkoholetan bere penak itotzeko. Han, garagardoa edaten zuen bitartean, gizon altu eta indartsu bat arropa militarrez jantzita zegoela ikusi zuen.

Gizona etorri eta beste trago bat hartzera gonbidatu zuen. Harroputz-itxurakoa iruditu zitzaion Renatari, bihotzak apurtzeko ohitura zuen horietakoa, alegia. Baina oso galaia zen, eta bera negarrez ikusita, zapi batekin poliki-poliki malkoak lehortu zizkon. Lasaitu zuen bitartean, bere izena Fernando Miguel García zela esan zion. Renatak, ordea, Fernandoren uniformea Espaniakoa zela ikusi zuen, eta oihuka hasi zen, une hartantxe bere aita Mexikoko armadak eramana zuelako espainiarren aurka borrokatzera. Tabernatik irten eta lasai hitz egin aurretik, Fernandok garbi utzi zion nahiz eta bi bando ezberdinetakoak izan, bera berezia zela eta ez zuela inoiz Renata "traizionatuko". Emakumeak, hau entzunda, bere besoetan bilatu zuen bere babesa.

Baina Fernandok, soldadua izanik, armadako eginbeharrak bete behar zituen, eta hilabeterako borrokatzera joan zen. Real de Catorce herriko jende guztia kezkatuta zegoen, gerra euren etxeetatik gertu zegoelako. Renata ere oso kezkatuta zegoen. Handik gutxira beste kolpe bat jaso zuen gainera: bere aita gerran hil zela jakinarazi zioten.

Egun batean, ordea, Fernandok Renata aurkitu, eta "bere bizitza ezin zuela bera gabe imajinatu" esan zion. Renatak gogor plantak egin nahi izan zituen arren, ezin izan zon hura usaindu, besarkatu eta musu eman nahiaren tentazioari eutsi. Handik aurrera bikote-harreman formala izatea erabaki zuten.

Hain maiteminduta zeudenez, ezkontzea erabaki zuen. Ezkontza bikaina izan zen eta Renataren herrian ezkondu ziren, gurasoen hilobien ondoan. Sekulako ospakizuna egin zuten eta herri osoa gonbidatu zuten festara.

Ezkondu eta bi astera, Renata haurdun zegoela konturatu zen. Ezin zuten sinetsi, eta biak guraso izateko gogo bzian zeuden! Renataren bizitzako bederatzi hilabete luzeenak izan ziren, baina sabeleko min eta ostiko guztiek merezi izan zuten: Miguel osasuntsu jaio zen.

Dena oso ederra zen! Aita-semeek etxeko parkean egunero jolasten zuten. Baina handik gutxira, Renatak balkoitik oihu egin zion senarrari, eta Fernando arduratuta beregana joan zen. Renatak berriz haurdun zegoela esan zion. Fernandok hunkituta, sabela hartu eta gogoz eman zion musu. Handik bederatzi hilabetera jaio zen Fernandito, bikotearen bigarren semea.

Urtebete geroago Manuel jaio zen, Renata eta Fernandoren hirugarren semea. Zalantzarik gabe, familia ederra zen, eta Renata oso zoriontsu sentitzen zen.

Horrela bizi izan ziren lau urtez. Baina egun batean, Fernandok bere familiakoen gutuna jaso zuen, haiek Espainian zor handitan zeudela esanez. Fernando Espainiara itzuli zen bere familiari laguntzeko asmoz. Itsasontzian zetorrela, baina emakume eder bat ezagutu zuen. Bera ere espainiarra zen. Ile horia, atsegina eta soinekoa neurrira eginda zeukan, eta Fernandok ongi zekien, Renata ez bezala, bera familia aberats batetik zetorrela.

-Kaixo! Espainarra al zara? -galdetu zion Fernandok

-Bai, Madrilekoa naiz -erantzun zion emakumeak irribarrez

-Ni ere bai! Hauxe kasualitatea! Nire izena Fernando da, pozten naiz zu ezagutzeaz!

-Ni Maria Juana de Padilla nauzu.

-Padilla familia aberatsaren alaba? -Fernandok ondo zekien zein ziren bere familiakoak, Espainia osoko familiarik aberatsenetakoak baitziren

-Bai, halaxe da! Pozten naiz zu ezagutu izanaz -erantzun zion Maria Juanak irribarrez -. Uste dut elkar hobeto ezagutzeko aukera izango dugula.

Fernandok ez zion aparteko jaramonik egin hor esandakoari, eta besterik gabe, bakoitzak bere aldetik bidaiarekin jarraitu zuten. Egun batzuk geroago, Espainiara iritsi ziren eta Fernando oso kezkatuta gelditu zen bere familiako egoera larria nolakoa zen ikusita.

Egun batean, Fernandoren aitak familia aberats bat afaltzera gonbidatu zuela esan zion semeari euren arazo ekonomikoak behingoz konpontzeko asmoz. Afalorduan, morroiak atea ireki zuenean, emakume eder bat sartu zen egongelara ozpin aurpegiko gizon baten eskutik. Maria Juana harrituta gelditu zen Fernando han ikustean, baina biek sorpresa atsegina hartu zuten. Aurkezpenak egin, eta Maria Juanak ozpin ituxrako gizona bere aita zela esan zion. Afaltzen hasi ziren barrezka eta ardoa edanez, eta postreen garaian, Maria Juanaren aitak komentatu zuen bere alaba Fernandorekin ezkontzea oso ideia ona izango litzatekeela. Fernandoren aitak baietz erantzun zuen zuzenean, eta orduan Fernandok garbi ulertu zuen dena. Maria Juanarekin ezkontzen bazen, bere familia aberatsa izango zen, eta zor guztiak ordaindu ahal izango zituzten. Hori dela eta, Fernandok, Renata ahaztuta, baiezkota esan zuen.

Hilabete bat geroago, Fernando eta María Juana ezkondu egin ziren, eta kasu honetan ere, sekulako ezkontza ospatu zuten. Bazirudien Fernandori ez zitzaiola axola Renatarekin ezkondu zegoela ere!

Bitartean Mexikon, Renata poz-pozik zegoen bere semeak zaintzen. Egun batean, bere lagun soldadu baten gutuna jaso zuen. Mezuan Fernando eta Maria Juana ezkondu zirela esaten zuen. Ezin zuen sinetsi! Negarrez hasi zen, bihotza milaka puskatan banatzen zitzaion bitartean.

Gutun hori jaso aurretik dena perfektua zen! Zoriontsua zen berriro! Baina garbi ikusi zuen dena... ez zegoen inorrek inorrek fidatzerik! Are gutxiago bere bizitza konpartitu zuen Espaniako "etsaia"rekin ere! Bere gurasoak hilda zeuden eta bakarrik zegoen berriro... eta bat-batean bere hiru semeek begiratu zien, traizionatu egin zuen gizonak eman zizkion hiru semeek, alegia... Eta gorroto hotza bakarrik sentitu zuen. Bera izorratu egin zuen bezala, berak ere mendekua hartzea erabaki zuen.

Mendeku gosez, Renatak picnic bat hantolatu zuen mendian, eta hara eramanez zituen bere hiru semeak. Lehenik, paseo bat eman zuten ibairaino eta bertan eseri ziren. Saskitik gauzak aterata eta meriendatu ostean, ibaira jolastera sartzea proposatu zion Renatak semeek.

Eta hala zebiltzala, Renatak seme zaharrena lepotik hartu zuen pentsatu gabe; izkina batera eramane zuen, eta han haurraren burua ur azpian sartu zuen. Miguelek ezin zuen gehiago, garrasika eta negarrez ari zen, baina ezin zuen ezer egin. Renata ere desesperazioz negarrez ari zen. Renatak ikusi zuenean mutikoa ez zela mugitzen, errekan barrena joan zedin utz zuen. Beste bi semeak harrituta gelditu ziren begira, baina jolasen bat zelakoan ez zuten ihes egin. Bi aldiz pentsatu gabe, erotuta eta kontrolik gabe, Renatak beste bi semeak hartu eta berdin-berdin ito zituen.

Renatak, ankerkeria hori egin zuenean, ordea, kontzientziako harrak jo zuen, eta erruarekin ezin zuenez, bere buruaz beste egin zuen zuhaitz batean zintzilikatuz. Denbora guztian negar egin zuenez, bere gorpuaren ondoan sekulako ur-putzuak aurkitu zituzten...

Eta halaxe iraun omen dute Renataren negarrek gaur egundaino...

Bobek, istorioa amaitzean amonari begratu zion izututa.

-Beno, bilobatxo, hauxe izan da Emakume negartiaren istorioa. Kondaira honek dioenez, gauean negarrak entzunez gero, Renata gertu dagoela eta mendekuaren bila datorrela esan nahi du. Baina bestalde, kondairak ere honakoa dio: Fernando Espainian zegoen bitartean beste alaba bat izan zuela... baina Renatak ez omen zuen inoiz hil -esan zuen amonak Boben sorbalda laztanduz.

Ni, ikaratuta, negarrez hasi nintzen negar batzuk entzun nituenean, eta azkar-azkar besarkatu nuen amona.

-Ez kezkatu... nire herenamonak ez dizu minik egingo -xuxurlatu zidan belarrira.

Handik metro batzuetara, izkina batean, irudi beltz bat zegoen beraiei begira, bere inguruan malko-putzu bat eraturik zuela...